

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Nafarroana bitxilorea

EUSKARAK BOTANIKAN TXERTATU DITUEN landare-izenen azkenekoetako bat hauxe da, nafarroana, *Iberis carnosa* subsp *nafarroana*. Mediterraneoaren mendebaldeko mendietan bizi den espezie honen barruan Nafarroana abizena Lizarra ondoko Antzinen topatu ziren ale bitxi batzuei eman zitzaion. Margarita Moreno botanikariak 1984an proposatu zuen subespezie gisa, Jakako herbarioan 1972az geroztik jasota dauden ale batzuk oinarri, eta ez ditu oraindik bedeinkazio guztiak jaso. Ohikoak baino tentexeagoak izateko joera dute, eta bitxilore izena duen botanikariaren ustez subespezie bat osatzeko adina desberdintasun badu multzo nafar honek. Hiru kilometro koadroko sailean bostehunen bat ale besterik ez dago. Bizilagun dituzte arte, elorri-triska, elorri zuria, estrepa edo txaraka, ezkaia, xaboi-belarra... Karea nagusi den lurretako koadrila. Nafar koadrila honetaz kanpo Euskal Herri osoan bizi diren beste denak *Iberis carnosa* subsp *carnosa* edo *Iberis saxatilis* subsp *saxatilis* dira. Berriz ere Margarita bezalako bitxiloreen bat etorri eta aparteko ezaugarriak dituen beste multzo bitxiren bat topatu eta definitzen ez duen artean... Honek, behinik behin, euskarari tokia eman dio botanikan *nafarroana* hitzarekin. Beste upeleko sagardo dira, adibidez *navarrena* edo *navarrensensis* abizena daraman hainbat eta hainbat landareri izena eman dioten botanikariak.



AUNAMENDI ENTZIKLOPEDIA

Antzin herria, Lizarrako merindadean. Hemendik gertu daude, hiru kilometroko koadroko sailean, ezagutzen diren *Iberis carnosa* subsp *nafarroana*-ren ale guztiak, 500 besterik ez.

Ozpinduaren barrika-gustu bizia izango zuen, bai, *Armeria euscadiensis* izena “c”-z jarri zutenen sagardoak, Provenceko Unibertsitateko Botanika Laborategiko Pierre Donadille eta Jean Vivant ortheztarra. Azken honek berak “deskubritutako” landareen artean beste euskaldun bat ere badu, baina hari ere zer abizen jarriko eta *vasconensis*, *Euphorbia polygalifolia* subsp *vasconensis*, alegia.

%20

Intsektuek, polinizazio egokia medio, fruitu ekoizpena hobetzen dute. Kafean, adibidez, hobekuntza hori %20koa omen da.

12.500

Orain arte dakigunaren arabera 12.500 landare espezie behintzat jangarriak dira. Horietatik 200 besterik ez ditugu etxekotu.

10

Zuhaitz heldu batek eragiten duen lurrunketak arnasten dugun airea hezatu eta ontzen du. Lan hori bera egiteko, airea egokitzen duten hamar makina beharko lirakeke.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Bolaleku S.A.T.

Konpost planta

Bi•lurra
Compost ongari organikoa

LORE•LURRA
Sustrato unibertsala

Lur begetal ongarrirua, ereindakoa, estaltzekoa,
Idor apaingarriak, trabesak.

Bakio bidea, 13 (Emerando)
Tlf.: 94 674 33 55
677 42 64 00
www.bolaleku.com

48100 Mungia
Bizkaia